

2020-2021eko Kirol Jardueretako diru-laguntzak eskuratzeko oinarri bereziak.

## Gaiaren azalpena

Hernaniko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten kirol Klubei eta Elkarteei zuzendutako aurrekontuko partidak biltzen ditu.

Diru-laguntzak Hernaniko Udalaren Kirol programen helburuekin bat datozen 2020-2021 denboraldiko hainbat kirol programa eta jarduera antolatzeagatik emango dira, horiek izandako proiektuagatik zein interesagatik.

Diru-laguntzak eskuratzeko aukera izango dute Hernanin kokatutako irabazi asmorik gabeko entitate juridiko pribatuek.

Kasu zehatzetan, eta Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak hala zehaztutakoan, Hernanitik kanpo kokatutako entitateek ere izango dute diru-laguntzak eskuratzeko aukera, betiere, antolatutako jardueren zati handi bat udalerrian bertan egin denean edota udalerrientzat interesgarriak direla ikusitakoan.

Entitateak indarrean dagoen araudiaren arabera eraturakoa izan behar du, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Entitateen Erregistro Orokorrean, zein Elkarteen Hernaniko Udal Erregistroan izena emanda egon beharko du.

Hemen aurkezten diren 2020-2021eko Kirol Jardueretako diru-laguntzak eskuratzeko oinarri berezietan zehaztatuta daude bete behar diren baldintza guztiak.

## Proposamena

Tokiko Gobernu Batzarrak onar ditzala aurkeztu diren 2020-2021eko Kirol Jardueretako diru-laguntzak eskuratzeko oinarri bereziak.